



- Sentier du Littoral
- a - Goéland leucophaea - Kaio hankahoria
- b - Grand Cormoran - Ubarroi handia
- c - Salsepareille - Endalahara
- d - Héron garde-bœufs - Lertxuntxo itzaina



Pirinioen eta Atlantikoaren topalekua

Guneari buruzko informazio baliagarriak

Jendeen harrera, bisita gidatuak: **Asporotstipi, Euskal Erlaitzaren Etxean.**
 Erlaitzaren errepidea - CD 912 - 64700 Hendaia
 Aparkaleku : lat 43°22' N long 1°44' O
 Tel: 05 59 74 16 18 - abbadia-cpie.accueil@hendaye.com - www.hendaye.fr

Zabaltze ordutegiak

Urritik marxora bitarte: 10:00-12:00 eta 14:00-17:30 (hetsirik igande, astelehen eta jaiegunetan)
 Apiril-maiatza: 10:00-12:00 eta 14:00-18:30 (hetsirik igande, astelehen eta jaiegunetan)
 Ekainetik irailera: 10:00-13:00 eta 14:00-18:30 (egunero)
 Urteko hetsialdia: Eguberriko oporraldia eta hurrengo astea

Etxea eta itsasoaren gaineko behatokia helgarri zaizkie mugikortasun murriztua dutenei
Gaztelu-behatokiaz gehiago jakiteko: www.chateau-abbadia.fr



Argazkien kredituak: Bernard Bayle, Jak Forrat-Mantel, Pascal Clerc / IAEZI-CPIE
 Itsasbazterra, Itsas Hegiaren Erakunde Zaintzailea
 Irudiak: Alain Glowczak
 Imprimé sur papier issu de forêts gérées durablement et fabriqué à Condat (24).
 Pixagram 05 57 544 700



Itsas hegiko bideari jarraiki, Hendaia eta Donibane artean

Interes publikoagatiko «onez oneko» desjabetze prozedura batez erosi ahal izan zion «Conservatoire du littoral» izeneko itsas hegieren erakunde zaintzaileak, 1979. urtean, Institut de France delakoari (Zientzien Akademia) Antton Abadiak, 1897an, akademia horri oinordetasunez utzia zion jabegoaren zati bat.

Hendaia herria hastapenetik arduratu zen parke «basa» horren kudeatzeaz eta parke eder hori jende orori zabaltzea hondartza eta ur jardueren osagarri den berdeguneen beharrentzako eskaintza ederra da. Data horretatik goiti, Itsas Hegiaren Erakunde Zaintzailea pazientzia handiz saiatzen da Abadiako jabegoa izan zenaren lurak erosten, bai eta Euskal Erlaitzaren gainerako lurak ere, hau da, Urruñako herriaren itsas hegikoak. 2000. urtean, Pirinio Atlantikoetako Departamentua ere parkearen kudeatzaile bihurtu zen, eta 2011n, baita Atalaia littoral basque izeneko elkarte ere, 2008an CPIE-IAEZI labela jasoa zuena eta horrenbestez tokiko animatzaile gisa sostengatua izan zena. 2019. urteaz geroztik, CPIE-IAEZI Euskal Itsasbazterra izeneko zentro hori Erlaitzeko lur publikoen kudeatzailea da.



Atlantiko eta Pirinioak tokiaren moldatzen joan dira, miloika urteotan, eta tokiak geologikoki duen aberastasuna mundu osoan da ezagun. Flyscheko itsas ezpondak ederrak dira baina baita arriskutsu ere. Euriaren eta itsasoaren eraginak batuz ahultzen dira leku horiek, egongaitz bilakatzen ditu eta litamenduen mende ezartzen. Guztiz debekatua da



ezponden zolan ibiltzea. Nor bakoitzaren segurtasunerako, behar-beharrezkoa da lekuak duen araudia betetzea eta seinalaturiko bidexketan ibiltzea. Larreak, soropil zabalak, hesiak eta zuhaiztiak habitat aberatsak dira landaredi eta aberdiarentzat eta ibiltariak paisaia eder anitzak ditu inguruan.

Jabegoaren lehengo etxaldeak izan zirenak garai batean garrantzitsu izan zen eta oraindik bizirik den laborantza baten lekuko dira. **Asporotstipi** etxaldeak euskal etxalde tradizionalaren itxura hartu du berriz ere, diskoteka izan zen eta «le Boléro» deitzen zen garaian galdu zuen itxura, alegia, eta egun **Euskal Erlaitzaren Etxea da**. Jendea urririk hartzen du urte osoan zehar. Museo alde bat eta mintzaldi eta aldi baterako erakusketa areto bana ditu.

Larretxea gunearen kudeaketa taldearen kokalekua da eta baliabideen zentro bat dago ere bertan, herritarrek eta kolektibitateak aholkatu eta laguntzeko hobeki har ditzagun kontuan euskal itsas bazter honetan natura ondarea zaintzeko ditugun arazoak, garapen iraunkorreko arazoak eta arriskuen kultura arazoak. Zentrora joateko hitzordua hartu behar da.

1998. urteaz geroztik, Nekatoenea egonaldian datozen artisten harlekua da, lanleku berezia ukan dezaten beren ikerketen egiteko eta lekuaren gainean behako berria ekar dezaten.

Erosi den azken etxea 2014an erosi zen, **Katalinkoenea**, eta gunek duen harrera baliabideak ekoturismoaren aldetik osatuko du.

Laborantzak naturagune horren kudeatzen parte hartzen du, ardi manexak alhatzera emanez. Fruitu baratzeak sagar barietate bilduma bat du eta haietako batzuk sagarnoa egiteko baliatzen dira.

Muino baten gainean kokaturik, **Gaztelu-behatokia** dugu; Viollet-le-Duc eta Duthoit ukan zituen eraikitzaile eta Antton Abadia manatzaile eta Zientzia Akademiarena da oraino. Gazteluaren arkitektura neogotikoa jabe izan zuenaren biziaren adierazgarri da eta apaindura joria, bere aldetik, bat dator, osoki, Abadiak esploraziorako, hizkuntzalaritzarako, astronomiarako eta geofisikarako zuen tirria sutsuarekin.

Itsas Hegiaren Erakunde Zaintzailearen egitekoa

Gizarteari funtsezkoak zaizkion erronkei arrapostu emateko funtsezko egin beharrak betetzen ditu: itsas hegiko naturaguneen desagertzea eta balioa galtzea ekiditea, itsas hegia suntsi erraz eta aldi berean oso gutiziatua baita.

Egiteko nagusia lurak eskuratzea du, betirako babestuak izan daitezzen.

Lurak erosiz, Itsas Hegiaren Erakunde Zaintzaileak epe luzerako babesa ematen die. Gure itsasertzeen aberastasun biologikoa, estetikoa eta nortasuneko atxikitzeko moduan eta orori zabalik uzteko moduan lehengoritzen ditu eta egokitzen leku horiek.

Egite horretan, iraupen luzeko elkarlanean ari da lurralde elkargoekin, erakunde publikoekin eta ingurumenari beha diren elkarteekin.

Itsas Hegiaren Erakunde Zaintzailea Akitania Berrian

Akitaniaren Itsasbazterren eta Urbazterren Ordezkaritza, egoitza Bordelen duena, itsas hegiko hiru departamentuetan aritzen da, Gironde, Landetan eta Pirinio Atlantikoetan.

10 kideko lantalde bat aritzen da erakundeak Rochefort-en dituen zerbitzu nagusiekin eta guneen kudeatzaileekin lanean. Talde horrek lurren begiratzeko eta lurren eskuratzeko ardurak ditu eta guneen kudeaketa gidatzen du ere, itsas hegia babestua eta orori zabalik izan dadin.

www.conservatoire-du-littoral.fr

Ordezkaritzaren ekintzak lurralde elkargoen sostengua du, bereziki Akitania Eskualdearena, inbestitze programan, funtzionamenduan eta komunikazioan laguntzen baitu; departamenduek naturaguneak eskuratzen laguntzen diote.

